



# CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEKO PROGRAMAK

## NORENTZAT?

DBHko 2. zikloan dauden 16 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako ikasleentzat, irakasle-taldearen arabera eta aldez aurretik ebaluazio psikopedagogikoa egin ondoren etaparen helburu orokorrak programa hauen bidez bakarrik lortu ahal izango dituztenentzat, hain zuzen.

Orokorrean, ikastearen eta eskola-ingurunearen aurrean jarrera positiboa duten ikasleak izango dira programa hauen xede, 16 urtekoen kasuan, baldin eta DBHko lehenengo zikloa gainditu badute -edo arlo bat edo bi falta bazaie- eta 17 urtekoen kasuan, DBHko 3. zikloa gaindituta badute -edo arlo bat edo bi falta bazaie-.

## ZER DIRA?

Etapa honen helburuak lortzeko DBHko 2. zikloa ikasteko beste modu bat da.

Urtebete edo bi irauten duten programak dira. Ikasleek talde bat osatzen dute, hezkuntza- eta gizarte-eremuan eta zientzia- eta teknologia-eremuan barne hartzen diren arlo gehienak ikasten dituen, astean 18 orduz gutxienez, eta eremu horietako bakoitza irakasle berak irakasten du. Gainerako arloak taldean bertan ikasten dira, hiru arlo izan ezik, talde arrunt batean ikasi beharko direnak, alegia.

Ikastetxeek curriculum desberdinak eratzeko oinarritzko programa bat izango dute. Programa horretan oinarrituta eta ikastetxeko orientatzaileak eta taldearen tutoreak aldez aurretik egin beharko duten ebaluazio psikopedagogikoaren ondoren, ikasle bakoitzari zuzendutako programa individualizatuak finkatuko dira. Tutoretza programa hauen oinarritzko osagaia da, ikaskuntzaren eta dagozkion zailtasunen jarraipena egiteko.

## ZER BEHAR DA CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA ESKATZEKO?

Curriculum desberdinak eratzeko talde bat izan nahi duten ikastetxeek baimena eskatu beharko dute urtebete edo bi iraungo duen programa bati heltzeko. Eskari horretan ondoren adierazten diren baldintzak bete beharko dira:

1. Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15 ikasle izatea, programarako aukerakoak.
2. Taldea osatzen duten ikasleen kopurua DBHko 2. zikloko ikasleen %15etik gorakoa ez izatea.
3. Gehienez bi talde eskatzea (nahiz eta hiru talde eskatu ahal izango dituzten DBHko 2. zikloan 300etik gora ikasle dituzten ikastetxeek).

**ZEIN IKASTETXERI EMANGO ZAIO BAIMENA CURRÍCULUM DESBERDINAK ERATZEKO?**

Ikastetxe guztiek eskatu beharko dute baimena curriculum desberdinak eratzeko taldeak eratu nahi baldin badituzte. Eskatutako taldeen artean, Hezkuntza Sailak egokitzat jotzen dituen emango die baimena, ondoren adierazten diren irizpideen arabera:

- Ikastetxeak aurre egiten dien eskola-arazoak.
- Bertako ikasleen egoera kaltetua.
- Ikastetxean DBHko bigarren zikloan dauden ikasleen kopurua.

Hezkuntza Sailburuordetzaren [ARGIBIDEAK](#), EAEko ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxeei deialdia luzatzen dienak, 2007-2008 ikasturterako Curriculum Desberdinak Eratzeko taldeak antolatzeko baimena eskatzeko EAEko ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak deitzen dituztenak.